

...eta

Kitto!

882 zkia.
2014-III-14

uskara



Pihan Vegaren
Euskararen
Espektakulue

hilaren 21ean

EUKi

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

ARTEKARITZA

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



+ OSASZUN GODA

Dentistak

ARAT Hertz Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA



Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tel: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hertz klinika

Asko dira
gure hertz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hertz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tlf.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

GASTESI
Hertz-Klinika
Ane Gastesi



Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zkia. OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

ASTEAN ESANAK

"Nahiz eta ekiditen saiatu, nahiz eta saltotxoak eman edota hanka puntetan pasatzen saiatu, feminismoaz hitz egiten denean gizonok beti putzuan amaitzen dugu. Izatea gustatuko litzaidakeen pertsonaren eta naizen pertsonaren artean amildegia dagoelako"

(KOLDO ALMANDOZ, KAZETARIA)

"Gure harrera sistemak kale egiten dihardu eta Euskadin bertakoen eta etorkinen arteko aldeak Europako handienak dira. Dugun hezkuntz sistemak ia ez du ezer egiten bestelako kulturak landatze bidean. Ez da zaila asmatzen ume horietan sortzen dihardugun frustrazio eta nortasun arazoak"

(FELIX ETXEBERRIA, PEDAGOGOIA)

"New Yorken profesional gazteen %80k ohetik bertatik egiten dute lana erregulariki: internet, sakelako eta ordenagailu eramangarrii esker. Ohea lanerako espazio bilakatu da, baina baita sozializazio gune ere: etzatea jadanik ez da geldi egotea, mugitzea baizik. Horren errebolta esperientzia izan zen Yoko Ono eta John Lennonek eztei bidaian egindako bi asteo ohe-protestaldia"

(SASKIA SASSEN, SOZIOLOGOA)

"Demokrazia nahieran: Kieven ontzat jotzen duguna arbuigarria da hemen. Hango ustelak indarrez kendu ahal dira boteretik; zilegi da. Hemengoak, ez. Ukrainakoaren aurrean demokraziaren arauak hankartetik pasatu dituztenek legitimitate moralik dute gurean Kieven ez bezala jokatzeko eskatzeko?"

(JOSE MARI PASTOR, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KAKOLARI.- Denari arazoa, traba eta aitzakia jartzeko zalea, beti arazoetan sartuta dabilena. Gaztelerazko 'problemático'. "Bata zan kakularixa, eta bestiak aterik aiña maratilla".

KAKUAK ATARA.- Zerbaiti daukan baino problema edo eragozpen gehiago atera. "Horrek edozein biharrari kakuak ataritzen baiño ez daki".

eskutitzak

LANGABEZIAK ETA POBREZIAK EMAKUME AURPEGIA DAUKATE

Krisiari aurre egiteko aitzakipean aplikatutako errezetek izan duten emaitza prekaritate laborala eta soziala izan dira. Enplegua duten emakumezkoek enplegu prekarioagoa dute, langabezian emakumezko gehiago dago, eta pobrezia poltsetan emakumezkoak dira nagusi. Zoritxarrez, argazki hori gure herrian ere errepikatzen da.

2014ko urtarilean Eibarren 2.214 lagun zeuden langabeen; horietatik, 1.192 emakumezkoak ziren (1.022, bestalde, gizonzkoak). Zenbaki horiei begiratuta ondorioztatu badezakegu ere emakumezko gehiago dagoela langabezian prestakuntza eskasagoa dutelako, datuek argi eta garbi adierazten digute hori ez dela horrela eta, egun, Eibarren emakumezkoak gizonzkoak baino prestakuntza hobia dutela. Esaterako, langabetu unibertsitate

tituludunen artean 141 emakumezko daude eta 100 gizonzko, eta LH Goi mailakoan artean 135 emakumezko daude eta gizonzkoak 94.

Enplegua dugunean, enplegu prekarioena emakumezkoontzat izaten da: lanaldi partzialak askotan, behin behinekotasunean, eta gizonzkoek baino gutxiago kobratuz. Prestakuntza hobia izanda, langabeziak emakumezkoak gehiago kolpatzen gaitu. Horrek zeri erantzuten dio? Kasualitateari, edo kausalitateari? Horrek guztiak kausak ditu, besteak beste oraindik orain jendartean emakumezko dagoen diskriminazioa, emakumezkoak bigarren mailakoak izaten segitzen dugulako. Aski da! Borroka ditzagun gure eskubideen alde! Zutik emakumeok!

EIBARKO ERNAL, LAB, SORTU

TXIRRINDULARI ELKARTEKO ERROPA EROSTEKO AUKERA

Eibarko Txirrindulari Elkarteak, 2014ko erropa berriaren eskaerak egiten diharduenez, interesatu guztiei deia egiten die taila probatu eta erreserba

egitera pasatzeko Pagaegi, 3 behean egiotzatik, eguaztenetan 19.00etatik 20.00etara.

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kito! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALA:** Oihan Vega

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Dena prest Nagusixen Hamabostaldixari ekiteko

Nagusixen XXI. Hamabostaldixa antolatzen daben Biztu Jubilau eta Pensionisten Koordinadorako, Eibarko lau jubilau etxietako eta udaleko ordezkariak eguztenian presentau eben kazetarixen aurrian egun gitxi barru hasiko dan programia. Aurtengo Hamabostaldirako aukeratu daben esaldi edo goiburua "Eibarko nagusiak izarrei begira" da eta Esteban Esteban Durangoko Astronomixa ikasgelako zuzendarixak hamabostaldixaren barruan emongo daben hitzaldixa zein astero Beheko Tokian egitten diran astronomixa saiueri erreferentzixa zuzena egitten detse. Programia berez martxuaren 28xan hasi eta apirillaren 11ra arte luzatuko da, baiña aurkezpen "ofizialaren" aurretik programia osatzen daben jarduerak ezagutzera emon nahi izan dittue, "batez be jendia parte hartzera animatzeko asmuarekin". Bestalde, honetzero urteroko programaziñuan finkatuta daguazen hainbat jarduerarekin batera, aurten beste berri batzuk sartzeko ahale-



Lau jubilau etxietako eta udaleko ordezkariak aurkezpenian. SILBIA

gin berezixa egin dabela azpimarratu dabe antolatzailliak. Adibidez, aurten lehelengoz erakusketia antolatu dabe (martxuaren 28tik apirillaren 11ra bittartian Armerixa Eskolako Ikasle Ohien argazkixak ikusteko aukeria egongo da) eta bertso-afarixa be egingo dabe.



Eibar-Sahara alkartekuen esker ona

Otsaillian Saharako errefuxiatuerei laguntzeo janarixa eta bestelakuak batzen lagundu dabeneri "egindako ahalegiñarengaittik" eskerrak emon nahi detsez Eibar-Sahara alkartekuak: "Eskerrik asko saharaiendako janarixa batzen laguntziagaittik. Gure esker ona azaldu nahi detsagu kanpañia egiñ ahal izateko atiak zabaldu deskuezen denda eta supermerkatu guttieri; ikastetxieri; udalari, jatekuak-eta batzoko eta garraiatzeko emon deskun laguntasun paregabiarengaittik; udal brigadako bihargiñeri, gauzak ondo egittiagaittik; herriko irakaslieri; komunikabidieri; botikeri; eta eibartar eta elgoibartar guttieri". Herri bixetan jendiak emondako laguntasunari esker, aurreko hillian Saharara abiatu zan karabanen bidaltzeko 2.755 kilo janari, 70 kilo konpresa, 750 kilo ojal eta 18 botika-kaja batzia lortu eben.

Armerixako Ikasle Ohien batzarra

Martxuaren 29xan Armerixa Eskolako Ikasle Ohiak LXIV. urteko batzarra egingo dabe eta, horren harira, goizetik hasitta hainbat jarduera berezi hartuko dittu eskoliak. 10.00etan Ikasle Ohien alkartekuerei harria egiñ eta gero, nahi daben guztiendako zabalik egingo diran ekitaldixeri 12.15ak aldera ekingo detse: eskolako eskillaretan taldiaren erretratu egiñ, hamaiketakua hartu eta jarraixan "¿Que puedes hacer tu por la industria de Eibar?" izenburuari jarraituta lan-saiua hasiko dabe. Bazkaltzera jua baiño lehen



Ikasle Ohiak iazko ediziñoko talde-argazkixan. LEIRE ITURBE

3D Laboratorixo Digitala inaugurauko dabe eta inprimitzeko teknika horren inguruko hitzaldixa eskinduko dabe. Unzaga Plaza hotelian egingo dan bazkarira jua nahi dabenak 943203146 telefono zenbakira deittu edo aaa@armeriaeskola.com helbidera idatzitta emon leike izena.

...eta kitto!-ren batzarra hillaren 20xan



Datorren asteko eguenerako (hillaren 20rako) deittu dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak urteko batzar nagusixa, 19.00etarako lehelengo deialdixan eta ordu erdi geruago bigarrenian. Batzarrerako gai zerrendari jarraituta, 2013ko gestiño-balanziarekin ekingo juko batzarrari. Jarraixan, 2014rako proiektuak azalduko dittue, bazkide kuotak aktualizau ala ez erabagiko da eta batzarrera juandako bazkidiak aurrekontu proposameneri botua emoteko aukeria eukiko dabe. Galdera-erantzunendako tartia amaittu eta jarraixan zuzendaritza barrixa zeintzuk osatuko daben aukeratu eta piskolabisarekin amaittuko da ekitaldixa.

Basuen Eguna ospatzeko ekitaldixak

Gaur Basuen Nazifioarteko Eguna da eta, horren aitzakixarekin, astebururako hainbat ekimen antolatuta dugu udalak, Debemen eta Debege sarekin batera. Asmua, "herritarrak zuhaitz eta basuen garrantzixarekin konturatzea eta ingurumena zaintziaren inguruko konzientzia har-



tzia" da eta, horretarako, zapatu eta domekan hainbat jarduera egingo dira gurian: bixar goizian, 09.00etatik 14.00etara IV. Lore, Landare eta Zuhaitzen Azokia egingo da Urkizuko parkian, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren laguntzarekin. Aurreko urtietako bidia irarrituta, bixarko azokan era guztietako landare eta zuhaitzak erosteko aukeria eukiko dau jendiak. Azokarekin batera, 11.30etatik aurrera taillarra eskinduko dabe, umiak zelan landatu bihar dan-eta ikasi deixen. Eta domekan, 11.00etan hasitta, Klub Deportibokuak Usartza al-dian 40 bat zuhaitz landatuko dittue, "gure jatorrizko basua berreskuratzeke asmuarekin".

Eibarko Kantuzaleak ETB-n

Aurreko asteko eguaztenian, hillaren 5ian, arratsaldero ETB-k emititzen daben "Airean" programa bertatik-bertara ezagutzeko aukeria euki eben Eibarko Kantuzaleak abesbatzako ki-diak, euretako asko publiko modura juatera animau ziran-eta: "Hogeitahiru lagunek inbita-ziñuari baietz erantzun eta holan animau giñan", kontau deskue. Gaiñera, Jaime Otamendik zuzentzen daben progra-man eztabaidatu zittuen gaixak gustora entzun zittuela diñue: "Emigrazi-ñuaren eta beste kontu batzuren inguruan jar-dun eben berbetan eta mahaixaren-bueltan egon ziranen artian Oier Araolaza eibartarra ego-tia tokau jakun".



autuan

SORTU-REN BATZARRA

Ezker Abertzaliak "Euskal Herria Bidean" estrategixa barrixa presentatzeko herri-batzarra egingo dau datorren astian, eguaztenian 18.30etatik aurrera Portalean. Hausnarketa honekin Zutik Euskal Herriari izenkuari jarraipena emon nahi detse.



MUGARRIXEN IBILBIDIA

Bixar zapatua egingo dabe Eibarko mugarrixak ezagutzeko ibilbidiaren lehelengo etapia, Iparraldekoa: Deporretik urtengo dira ibilbidia egitteko izena emon dabenak eta, Mendi Taldekuak gidari, Ego Errekaren ezkerreko al-dian geratzen diran mugarrixak bisitauko dittue, Arizti basarrittik Azitaiñ alderaino. Bigarren etapa hillaren 29xan egingo da, errekarren beste aldeko mugarrixak ezagutzera juan nahi dabenekin.



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea





LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

C A D E N A



104,0 FM

asteko %47^{kua} datua

da organikuen birziklatze-tasa Debabarrenian: 1.426 basari eta etxe solte dagoz eta 678'k konposta etxian egiteko programan izena emon dabe: 171 Elgoibarren, 116 Mutrikun, 114 Eibarren, 93 Mallabian, 87 Deban, 45 Soraluzen, 36 Mendaron eta 16 Ermuan.



Gure Esku Dago ekimena aurrera

Erabagitzeko eskubidiaren alde biharian diharduen **Gure Esku Dago / San Blas Zati Bat taldekuak** ekaiñaren 8xan egingo dan giza-katiarendako metruak saltzen segitzen dabe: Kultun, astelehenetik barixakura 11.00etatik 13.00era (martitzenetan, 19.00etatik 20.00etara be) egongo dira eta Deporren, barriz, barixakuetan, 19.00etatik 20.00etara. Horrekin batera, hillaren 29xan Bilbon egingo dan ekitaldira jua nahi dabenendako autobusak antolatzen dihardue (txartelak 6 euro balixo dau eta 16.00etan Ego-Gaiñetik urtengo dabe). Interesa dakanak aittatutako toki eta ordutegixan taldeko ordezkariexeri izena emoteko aukeria daka (lehenbailehen emotia komeni da, antolatzaiilliak hillaren 17rako zenbat jende batuko dan jakin nahi dabe-eta). Ekimena ezagutzera emoteko kanpaiñaren barruan, bestalde, datorren asteburuan (hillaren 22xan eta 23an) Untzagan metruak eta materixala saltzen egongo dira eta txosnia be ipiñiko dabe: zapatuan 12.00xetatik 15.00etara eta 19.00etatik 21.30xetara eta domekan goizez bakarrik. Baten bat txosnan edo bestelakuetan laguntzera animau ezkeru, taldeko ordezkariexin kontaktuan ipiñi leike.

Transmisiñuaren Mintegirako izen-emotia zabaltziar

Maiatzaren 6xan egingo da IV. Euskeriaren Transmisiñuaren Mintegirako Portalean, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Egun osuan, 09.00etan hasi eta 18.00ak bittartian euskeriaren transmisiñuaren inguruan jardungo dabe berbetan hainbat adituk. Antolatzaiilliak azaldu



lazko edizioan parte hartu zutenetako batzuk. SILBIA HERNANDEZ.

dabenez, "sekula baiño hizlari gehixagok hartuko dabe parte. Bestiak beste Saioa Larraza (BCBL), Naiara Martin (Atxutxiamaika /Elgoibar-ko Izarra), Ibon Manterola (EHU), Patxi Arburuaga (Bortzirietako Mankomunitadi), Eduardo Fraile (Amurrioko Aresketa ikastola), Paula Kasaes (UPNA) eta Asier Arrieta (EHU) etorriko dira". Programa zihetza datorren astian emongo dabe ezagutzera eta izena emoteko epia martxuaren 31tik apirillaren 30era arte egongo da zabalik (25 euro egun osua, bazkari-xa barne; 15 euro egun erdixa). Informaziño gehixago nahi dabenak normalizaziñua@etakitto.com helbidera idatzi edo 943200918 telefono zenbakira (Ainara Labado) deittu leike.

Eraikuntzaren inguruko ferixia

Udalak "Etxeak Konpontzen" izeneko ferixia antolatu nahi dau maiaztzian, "krisixak gogor astindu daberen sektore horretako enpresa txiki eta ertaiñak babesteko asmuarekin. Etxebizitzak konpontzeko, zaharbarritzeko edo birgaitzeko aukeriak be hor segitzen dabela azpimarratu nahi dogu". Ferixiaren inguruan zelako interesa egon leikian ikusteko lehen billeria aste honetan bertan egin dabe eta, horren arabera, udalak eta Debegeesak alkarlanian maiaztzaren azken asterako antolatu nahi



dabe ferixia. Bertan parte hartzeko deialdixa eraikuntza/birgaitzuntza enpreseri nahiz arkitektura eta diseiño-bulegueri zuzendu nahi detse antolatzaiilliak, lehenagotik martxan daguazeneri zein gaztien eskutik sortu barri diraneri.


Maltzagako antxiñako argazkixak

Ego Ibarra batzordiak Maltzagako antxiñako argazki mordua interneten ikusteko moduan ipiñi dittu, egoibarra.com bere webgunian: "Jose Luis eta Patxi Murgoitio anaixak lagatako erretratuetan auzuak izandako billakaeria edarto



islatzen da, sasoi batian Maltzagak izan eban nortasuna erakusten dabe argazkixak". Izan be, gaur egunian ezagutzen dogun Maltzagak zerikusi gitxi daka lehenguarekin: XX. mende hasierian, tren geltokixa han eguanian, elizia, etxia, eskolia eta kantinia be euki zittuan auzuak.

EUSKARAREN ESPEKTAKULUE



Oihan Vega bergararrak "Euskararen Espektakulue" eskainiko du Portalean gaur zortzi, hilaren 21ean, 19.30etan hasita. Ikuskizunak "Zergatik praktikatzen dugu sexua erderaz?" du izenburutzat eta gure hizkuntzarekin dugun jarrera aztertzen du, umorea eta musika lagun dituela. Ikuskizunerako sarrerak, 3 eurotan, salgai daude Kultun eta ...eta kitto!-n.

OIHAN VEGA (aurkezle eta musikaria):

"Umoreak lagunduta, euskerarekin dugun jarrera begibistan ipintzen dugu"

- Zein ezaugarri ditu "Euskeraren Espektakulue" ikuskizunak? Antzerkia da? Zenbat irauten du?

Bakarrizketa da, azken aldian hain modan dauden "El Club de la Comedia" moduko monologoetakoa. Gitarra dut lagun eta, horretaz baliatuz, musikak ere zeresan berezia du euskeraren inguruan egiten dugun hausnarketan. Lanak duen azpitituluak adierazten duenez, "zergatik praktikatzen dugu sexua erderaz"? Gauza bera irainak-eta botatzerakoan... Egoera biszeralen aurrean, ohikoena erdarara jotzea izaten da. Horretaz jabetu nahi dugu ikuslea, umoreaz eta ironiaz baliatuz. Gainera, Kepa Errasti gidoilariak nire ikuskizunerako prestatutako sketch eta laburmetriak lan osotuagoa egitea ahalbidetzen du. Ordu eta erdi inguru irauten dugu agertokian.

- Zelan sortu zen ikuskizuna egiteko ideia? Noiztik diharduzue erakusten?

Badira bi urte estrenatu genuela. Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak euskeraren erabileraren inguruan hausnarketa egiteko balioko zuen zeozer prestatuko genuen galdetu zigun. Euskeraz jakinda ere ez dugula egiten-eta arduratuta, hitzaldi antzerakoa eskatu ziguten. Hitzaldiarena hotzagoa ikusi nuen eta umoreaz baliatu behar ginela pentsatu; horrela, jendeak mezua barnerratu dezakeelako modu gozoagoan. Debagoienako hainbat herritan ikuskizunak izan zuen arrakasta ikusita, gure eskualdetik ateratzera ausartu ginen eta 55 emanalditik gora eskaini ditugu.

- Bi urte hauetan egoera aldatu da? Behartuta ikusi duzue zuen burua ikuskizuna, modu batean edo bestean, aldatzeko?

Jarraitzen dugun gidoia hasierako bera da. Hori bai, antzerki batetik bestera eta bakoitzak duen ezaugarrien arabera, erritmoa eta sketch-en ordena aldatzen joaten gara. Euskeraren egoerari dagokionez, ez dut igarri aldaketa askorik: uste dut mundua ezin dela aldatu epe motzean, gauzak bere arrastoa behar dute indarra hartzeko. Horregatik, zaila da ikuskizun bakar batek egoera aldatzen asmatzea, baina batuketak kontzientziario mailan beti izango du eragina. Gainera, bizi dugun egoera ez da alarmantea ere, ez da hain larria... Baina, kontuz! Komeni da jabetzea.

- Hau da: jarraitzen dugula, berdin-berdin, sexua erderaz praktikatzen...

Hori norberak ikusiko du! Egia esan, ez dago inora joan beharrik ikusteko genitalak definitzeko eta halakoetan euskerak momentuz sinonimo gutxiago eskaintzen digula. Gauza bera irainak jaurtitzekoan, hiztegi juridiko-legala erabiltzerakoan. Bestelako gauzetan, oinarrikoagoetan, jarririko genuen atentzioa eta esparru horiek langu gabe izango ditugu oraindik...

"Ordu eta erdiko ikuskizunean, ironiaz baliatuz, barre egiteko aukera ona dugu"

- Jendeak zelan hartzen du zuen ikuskizuna? Zein izaten da inpresio nagusia?

Ondo. Lehenengo segundotik onartzen baitu ez dela serioa. Guztiarekin eta guztiekin sartzen naiz, katxondeo giroan murgilduta. Hori bai: txisteen atzean dagoena arakaten baduzu pixka bat, egi biribilak aurkituko dituzu. Hor geratzen da lehen esandako arrasto hori. Barre asko egiten dugu eta, horretarako, ez naiz moztzen: EGA, EITB, Euskaltzaindia, neure burua... erretratututa geratzen dira.

- Jende guztientzat da? Eskaintzen duzue ezustekorik?

Edozeinek ulertu dezake ikuskizuna; baina, batez ere, helduentzat prestatu dugu. Erabiltzen dugun umorea askoz errazago ulertuko du adin batetik aurreragoko jendeak. Ezustekoak ere badira, baina beti ere horrelako bakarrizketa batek eskaini ditzakeen arloan. Oso gutxi landu dira horrelako monologoak euskeraz: denak erdaraz direla esatera ausartuko nintzateke. Gure lepotik barre egitera ez dut uste oso ohituta gaudenik. Pixka bat eskizofrenikoa ere egiten zaigu.

- Eta Eibarkoaren ondoren, zer? Bestelako zeozer bazabiltza prestatzen?

Gure agendan ditugu, epe motzera, oraindik izan ez garen hainbat herri. Abuztura arte, egutegia hartuta dugu, tartean Bilbon eta Donostian eskainiko ditugun saioekin. Bestelako ikuskizun bati heltzeko asmoa ere hori dut, ideia batzuekin aspalditik nabil bueltaka... baina oraindik ez naiz hasi gutziz prestatzen.

Berreibar Ekimen Kulturalaren sorreriaren barri oin dala gitxi euki genduan arren, Txontako lehen agerraldixa egiñ ebenetik hona etenbarik jardun dabe biharrian M-etxea kolektibuaren eskutik sortutako ekimeneko kidiak.

Txonta auzuan Erb Mon artista grafiteruak lagunduta egindako aurkezpenian aurreratu eben moduan, Eibarko ondare industrialia berpizteko proiektu modura jaixo zanak pauso bat aurrera emon dau eta ekimenak garatu nahi dittuenen premiñeri egokitutako lantokixak sortzeko biharrian jardun dabe. Eta biharra gogotik egin dabe, emaitza ikusi nahi dabenak martxorako antolatu daben programia begiratu baiño ez dau egin bihar. Eta bide horrerri segiduko detse etorkizunian be: proieksiñuak, hitzaldixak, antzezlanak, erakusketak... denetarik antolatzeko asmua dake-eta. Eta ez hori bakarrik. Domekatik aurrera kultur ekitaldixetarako gune barrixa, Bektokixa izenekua eukiko dogu herrixan.



Hildako TAILLARRAK kulturarekin BERPIZTEN

Saso batian Bittor Sarasqueta kalia BH tallarrak bete eban tokixari bizi-ttasuna emon nahi detse, ekimen kulturalak antolatzeko laga detsazen 290 metro karra-tuak txukundu eta ahalik eta etekiñik haundiña etarata. Ekaiñera bittartian kulturarekin zerikusixa daken jarduerak hartuko dittu Bektokixak, bestiak beste Maushausen umiedako taillarra, Eibarko musikuen kontzertua, Kezka Dantza taldiaren hitzaldi dantzatua... Ekitaldi gehixenak duan izango dira eta egutegixan gerturazten jua ahala bakotxaren barri emoten juango dira.

Paisajismo lehiaketia

Berreibar Ekimen Kulturalaren eskutik Paisajismo Lehiaketia egingo da. Parte hartu nahi dabenak apirillaren 22ra arteko epia eukiko dau bere proposamena jasotzen daben proiektua taardarabar@gmail.com helbidera bidaltzeko, eskatzen dittuen beste agirixekin batera.

Antolatzailliak azaldu deskuenez, "lehiaketara presentatzen dittuen proposamen guztiak jaso eta aztertu ondoren, gauzatzeko egokixenak izan leikiazenak aukeratu eta hórretxek errealdade bihurtzeko biharrari ekin nahi detsagu.

Horregittik, lehiaketan parte hartzen dabeneri proiektua garatzeko bost kokaleku edo toki proposau detsagu, hórretatik bat aukeratu deixen. Parte-hartzailliak lorategixak sortzeko ideiak baiño zeozer gehixago presentatzia gustauko litxakigu eta, horregaittik, gure proposamenetan paisajismua eta inguruan daguan industria batzen ahalegindu gara, lehiaketarako proiektuak lantzerakuan hori kontuan euki deixen".

Antolatzailliak proposatzen dittuen tokixak bost hórnetxek dira: Bista-Eder plazia (Errekatxu 5-eko taillarrari lotuta), Armerixa Eskola pareko plazia,

DATOZEN EKIMENAK

Martxuak 16 (domeka)

19.00.- Antzerkixa: "Antonio Remachado". Sarrera: Euro bat. Bektokixan (Bittor Sarasketa, 7-1 ezk).

Martxuak 20 (eguna)

19.00.- Hitzaldixa: "La mochila del emprendedor" (Carlos Abad) + "Reflexiones sobre la internacionalizacion" (Gustavo Laskurain). Sarrera duan. Portalean.

Martxuaren 21etik apirillaren 13ra arte

"Diferentes lecturas de un mismo espacio" Ane Ojangurenen argazki erakusketia (inauguraziñua 21ian, 19.00etan). Topalekuan.

Martxuak 22 (zapata)

10.00etatik 13.00era.- "La mirada de los niños 1: ruta por Matsaria" pintura taillarra, Maite Arriagaren eskutik. Preziua: Euro bat. Matsarixan.

Martxuak 29 (zapata)

12.00etatik 14.00etara.- "La mirada de los niños 2: Topaleku" pintura taillarra, Maite Arriagaren eskutik. Preziua: Euro bat. Topalekuan.



Maite Arriagaren eskutik, umiendako pintura taillar bi egingo dira: bat Matsarixan eta bestia Topalekuan.

IRATI NARBAIZA ETA NAGORE FERNANDEZ (ARKITEKTUAK)

"TEORIXATIK PRAKTIKARA SALTUA emon nahi izan dogu"

- Zelakua izan da Berreibar arkitektura-proiektutik Ekimen Kulturalera biltzeko saltua?

Berreibar berez arkitektura arloko proiektu modura sortu zan, herrixan erabilli barik dagozen eraikin industrialak begiratu eta eskintzen dittuen aukerak ikusi eta gero, hutsik dagozen tallerreri erabillera barrixak emoteko asmuarekin. Baiña horren inguruko billerak egitten hasi eta segiduan konturau giñan jende gehixenak pentsatzen ebala holako tokixak betirako hutsik segiduko dabela, hau da, betirako erabilli bariko toki modura ikusten zittuala. Horregaittik, perpezziño hori aldatzeko-edo, hutsik dagozen eraikin industrialak erabiltzeko aukera mordua egon badaguzela erakusteko, ekimen kulturalerako saltua emon genduan, Berreibar Ekimen Kulturala sortuta. Teorixa albo batera lagata, egokixena berrerabilleraren inguruan esandako guztiak zuzenian praktikan ipintzia erabagi genduan eta horretan gabiz.

- Eta zelakua izaten dihardu kultur ekitaldixak antolatzeko biharra?

Ekintza kultural modura diru-laguntza eskaeria egin genduan eta Eusko Jaurlaritzak arlo horretarako, hau da, kultur ekimenari lotutakuak antolatzeko laguntasuna emon desku. Hasteko, motorrak berotzen juateko, Portalean astero egitten diran hitzaldixak antolatzitari ekin gentsan, baiña hori hasieria baiño ez da. Izan be, gure asmua edade eta era guztietako jendiarendako erakargarrixak izan leixiazan jarduerak antolatzia da, ahalik eta eskintza zabalena eukiko daben programaziñua osatuta.

- Asteburu honetan kultur ekitaldixetarako gune barrixa inaugurauko dozue...

Bai, domeka arratsaldian Kolektibo Monstrenkok eskinduko daben "Antonio Remachado" antzeulanarekin inaugurauko dogu Bektokixa. Bittor Sarasketa kalia hutsik eguan tallarraren uga-zabak, zertan genbiltzan jakiñ eta tokixa erabiltzeko permisua emon desku. Lokala hutsik dago, baiña sosisguz-sosisguz janzten juango gara eta antolatzen dittugun gauzetako batzuk hemen egitteko asmua dakagu.



"Antonio Remachado"
antzeulanarekin inaugurauko
dabe domekan Bektokixa.

Muzategiko horma (El Casco lantegixari lotuta), Bidebarrieta kalia, merkatu plazaren eta Errebalgo etxien bittartian dagozen eskillarak eta Bittor Sarasketako aparkalekuko partak (BH lantegixa izandakuari lotuta).

Bestalde, lehiaketatik harago, jendiak finalista geratzen diran bost proiektuen artian gehixen gustatzen jakonari botua emoteko aukeria eukiko dau, interten bidez (berreiba-rekimenkulturala.wordpress.com helbidian horretarako preparauko daben atalian) edo, bestela, maiatzaren 17xan Untzagan egingo daben botaziñuan zuzenian bozkatuta. Irabazliak 200 euroko sarixa jasoko dau. Parte hartzeko bete biharrekuak eta bestelako azalpenak Berreibar Ekimen Kulturalaren webgunian esku-[ragarri dagoz](http://ragarri.dagoz).



**MILA ESKER, BIHOTZ-BIHOTZEZ,
M^a ISABEL AREVALO AIZPURUren
sendiaren partez.**

Javi, Boli, Juan Manuel eta Adzina neba-ahizpak,
Carmen lehengusina eta familia.
GOGORAN DEZAGUN IZAN ZEN DEZAGUN



Hemezortzi urteko eibartar honek, beste hamairu neskarekin batera, Eibarko Koro Gazteari ahotsa ipintzen dio Elena Martin-en zuzendaritzapean. Abesbatza honetan, sasoiaren arabera, batzuk alde egin eta beste berri batzuk sartzen joaten dira, baina azken aldirian mutilik ez da gerturatu. Laster hori aldatuko den esperantza daukate.

- Noiz eta zergatik animatu zinen Koro Gaztean parte hartzera?

Orain dela hiruzpalau urte sartu nintzen. Musika eta abestea betidanik gustatu zaizkit, baina aurretik ez nuen sekula parte hartu abesbatza edo antzerakoren batean. Aurretik Euskal Telebistako "Oh Happy Day" lehiaketarengatik herriko gazteen artean oso ezaguna egin zen abesbatza eta, beste barik, lagun batekin batera animatu nintzen eta hemen nago, pozik.

- Zeintzuk osatzen duzue Eibarko Koro Gaztea gaur egun?

Ba une honetan hamalau neska gaude Koroan: gazteenak 15 urte dauzka eta nagusienak 21 eta gure irakasle eta zuzendaria Elena Martin da.

- Astean zenbaten egiten dituzue entseguak?

Astean hiru egunetan batzen gara Musika Eskolan (Portaleko 4. solairuan): martitzen eta eguenean 20.45etatik 21.45etara ensaiatzen dugu eta barixakuetan 16.00etatik 18.00etara. Martitzen eta eguenean entseguetan normalean ahotsa lantzen dugu eta barixakuetan, berriz, ahotsa lantzeaz gain, abestientzat koreografiak eta prestatzen ditugu.

- Musika jakin behar da Koroko kide izateko?

Berez ez da zertan musika jakin gutariko batzuk solfeo ikasita zuten lehenagotik, baina beste batzuk musika sekula ikasi barik sartu dira Koroan. Nahikoa da abestea gustoko izatea, ez da besterik behar.

- Urtean zehar zeintzuk dira Koro Gazteak eskaintzen dituen emandirik garrantzitsuenak?

Ikasturtean zehar sor daitezkeen kontzertuak albo batera lagata, urtero urtero kontzertu bi ematen ditugu: Gabonak inguruan izaten da horietako bat eta bestea, berriz, ikasturte amaieran. Bestela, inoiz ezkontzaren batean abesteko deitzen digute. Horrez gain, iaz Aste Santuko oporrak aprobetxatuta, Bartzelonara joan ginen abestera eta aurtien esperientzia errepikatu eta, Pazko Astean, Bartzelonan emango dugu kontzertua.

- Nolako abestiak kantatzen dituzue?

Gurea ez da koro lirikoa. Oso erreperitorio zabala daukagu: pop, rock, gospel... Erritmoko abestiekin batera, euskal kantu ezagunak abesten ditugu, gehienetan jendearentzat oso ezagunak diren abestiak.

- Lehen mutil batzuk ere bazueden taldean, baina gaur egun ez. Zergatik?

Uste dugu gure adinean mutilik nahiago izaten dutela kirolen batean jardutea Koroan abestea baino. Koroan sartzera animatuko lirakeen bakar batzuk ezagutzen ditugu, baina beste mutilik ez dagoenez... Euren artean berba egitera eta lotsatu barik Korora etortzera animatuko nituzke. Orain, bakarrik neskek abesten dugunez, ahots zurien abesbatza gara; baina, mutilak etorri gero, Koroak joko gehiago emango luke.



Jone Lahidalga
(EIBARKO KORU GAZTEA)

"Mutilekin joko gehiago emango luke Koroak"





**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingeleseatik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

Udalekuetan izena emateko epea zabalik

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuetan izena aurrez emateko epea eguaztenean zabaldu zen 7-13 urte bitarteko umeentzat. Interesatuek hilaren 20ra arte izango dute izena emateko aukera, www.gipuzkoa.net/oporraldi webgunean: "Udalekuak 2014" atalaren gainean klikatuta, uda honetarako eskaintza eta bestelako argibideak eskuratu daitezke eta, izena eman nahi duenak, on line izen-emateko aukera ere badauka, horretarako dagoen azpiatalean sartu eta eskatzen dituzten datuak beteta. Izena aurrez ematen duten guztien artean apirilaren 3an zozketa egingo du-



te, bakoitzari egokitutako aterpetxe eta txandak zentzuzkuz diren erabaki eta bantatzeko. Aurretik, baina, martxoaren 31n eta apirilaren 1ean zozketarako onartutako izen-abizenak ezagutzera emango dituzte, nahi duenak erreklamazioak egin

ahal izateko. Zozketan plaza lortzen dutenek apirilaren 4tik 14ra bitartean egin beharko dute behin betiko izen-ematea. Bestela, epe hori amaituta norbaitek izenik emango ez balu, arduradunek zozketan eskuratutako tokiari uko egiten diola ulertu eta beste norbaiti emango diote izena emateko aukera.

Informazio gehiago nahi izanez gero Portaleko lehen solai-

ruan dagoen Gazte Informazio Bulegora jo daiteke zuzenean edo, bestela, 943708435 telefono zenbakira deitu. Horrekin batera, aipatutako webgunean bertan zein 943 445 980 telefonora deituta argibide gehiago jasotzeko aukera ere bada.

Laster 14-17 urte bitartekoek

Nagusia goek, 14 eta 17 urte bitarteko gazteek ere izango dute uda honetarako antolatu dituzten Gazte Oporraldiak programan parte hartzeko aukera, baina bertako eskaintza zehatza ezagutzeko zein izena aurrez emateko pixka bat itxaron beharko dute oraindik. Hala ere, egun gutxiren buruan interneteko atari berean (www.gipuzkoa.net/oporraldi) informazioa eskuragarri ipiniko dute eta izen-emateko aukera ere emango dute.

Belgikako ikasle-irakasleak Armeria Eskolara bisitan

Astelehenean ailegatu ziren Eibarrera Belgikako Tihh Hasselt ikastetxeko Mekanika eta Elektrizitate alorreko dozena bat ikasle-irakasle, Armeria Eskolara eta Tennecok elkarlanean garatzen diharduten "Working in your neighbourhood: it's Europe" proiektuaren testuinguruan antolatutako bisitan. Ailegatu eta berehala, astelehenean bertan Eibarko Udalak harrera ofiziala egin zien. Martxoaren amaiera arte gure herrian egongo diren belgikako orde-

kariak elektrizitate eta mekanika-adarreko klaseak hartuko dituzte Armeria Eskolako sei irakasleren eskutik, ingelesez, ikastetxeko gela eta tailerretan. Horrekin batera, hemen emango dituzten egunak hainbat toki ezagutzeko aprobetxatuko dituzte: besteak beste Gaindu eta Danobat enpresen instalazioak eta produktuak bertatik bertara ezagutzeko dituzte eta Eibarko Armagintza-ren Museora bisita egiteko asmoa ere azaldu zuten.




EMILIO AZURMENDI AGIRRE

"Sagarbitza"

1. URTEURRENA (2013-III-13)

**BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN (MARTXOAK 16)
EGUERDIKO 12.30etan, ARRATEKO ELIZAN.**





argazkiak: LEIRE ITURBE

Emakumeek plazara atera zuten eskubideen aldarria

Aurten Martxoaren 8-ak zapatuarekin bat egin duenez, Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldi nagusiak egunean bertan egiteko aukera egon zen eta, beraz, zapatu eguerdian jende asko gerturatu zen Untzagara, "Nire gorputza nire erabakia" goiburuari jarraituta egin zen elkarretaratzean zein antolatutako beste jardueretan parte hartzera. Izan ere, Eibarko Udalak eta Andretxeako emakume elkarteetako ordezkariak egun bete-betea prestatu zuten: Untzagako kontzentrazioa amaitu eta jarraian, Amaia Agirre eta Nerea Elustondo bertsolariekin eta Eibarko trikitalariekin batera bertso-triki-poteoari ekin zioten eta, bapo bazkaldu eta gero, arratsaldean Andretxean egin zen "tuppersex" saioarekin agurtu zuten eguna.

Bezperan, bestalde, udaleko Bozeramaileen Bazarrek Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruko adierazpen instituzionala onartu zuen aho batez, "emakumeen mugimenduaren ekimenak babestearen garrantzia" azpimarratuta. Adierazpenari jarraituta, Eibarko udalak "mugimendu feminista edota emakumeen mugimendu antolatua sustatzeko, babesteko eta indartzeko" konpromisoa hartu du, "herriko bizitzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ahalbidetzeko asmoz".

Martxoaren 8aren inguruan antolatutako egitarauak datozen egunotan ere jarraipena izango du: Antzerki Jardunaldiak elkarlanean antolatuta, datorren astelehenean 20.30etan Hezkuntza Esparruan "Juana la loca, la reina que no quiso reinar" antzezlanaren taularatuko da; martitzenean, 19.00etan Joana Etxanok "Derechos sexuales y reproductivos desde una perspectiva internacional" hitzaldia emango du Portalean, Eibarko Berdintasun sailak eta Mugarik Gabe eta Egoaizia Gobernu Kanpoko Erakundeek antolatuta; eta martxoaren 22an (zapata) "50 sombras de Grey" tailerra hartuko du Andretxeak 10.00etatik 14.00etara.



Nerea Elustondo eta Amaia Agirre.

47 eibartar domekako Lilatoiaren 25. edizioan

68	Olga Herrero	22'52"	1.485	Natalia Marcos	32'34"
132	Marina Kruzelaegi	24'23"	1.486	Elisabet Osinalde	32'34"
212	Ainhoa Argoitia	25'27"	1.488	Oihane Arrate	32'34"
351	Maialen Zubizarreta	27'08"	1.581	Eneka Delgado	32'50"
417	Cristina Olañeta	27'42"	1.630	Jaione Yeregi	32'59"
418	Ainara Barreneche	27'42"	1.813	Libe Gorosabel	33'33"
477	Sara Arizmendi	28'03"	1.818	Nerea Maguregi	33'33"
502	Lourdes Murgoitio	28'19"	1.912	Piedad Arrillaga	33'49"
597	Aintzane Aristi	28'50"	2.224	Virginia Basurto	34'59"
614	Irene Ramirez	28'53"	2.445	Nerea Oteiza	35'39"
715	Isabel Lopez	29'28"	2.446	Izaskun Rodriguez	35'39"
726	Eider Sampayo	29'31"	2.447	Laura Fernandez	35'39"
797	Ainhoa Ugarte	29'47"	2.448	Tamara Amador	35'39"
863	Maidier Otaola	30'09"	2.589	Amaia Fernandez	36'07"
949	Nerea Telleria	30'33"	2.592	Teresa Vila	36'08"
966	Amaia Rodriguez	30'36"	2.655	Luci Ibazeta	36'25"
1.047	Izaskun Alberdi	31'01"	2.658	Chelo Vila	36'25"
1.074	Ane Sarasketa	31'07"	2.898	Laura Conde	37'36"
1.077	Alicia Martinez	31'08"	2.899	Lety Diez	37'36"
1.106	Ane Azkue	31'12"	2.938	Idoia Arriola	37'52"
1.117	Virginia Areta	31'14"	2.939	Miren Edume Retenaga	37'52"
1.237	Oihana Garcia	31'41"	2.940	Teresa Herrero	37'52"
1.334	Ana Bizkarguenaga	32'06"	3.028	Begoña Garate	38'38"
1.357	Nerea Zubizarreta	32'11"			



Donostian jokaturako Lilatoiaren 25. edizioan 3.236 emakume bako gehiagok parte hartu zuten eta zilarrezko ezteiak betetzen zituen kirol festa arrakastatsu bihurtu zen. Euren artean Eibarko 47 emakume izan ziren eta, baita, ileorde urdinekin moztortuta eta karteekin animatzera joandako taldea ere. Parte-hartzaileek 5 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten Donostiako kaleetan barrena eta Izaro Rubio ordiziarrak egin zuten denborarik onena. Datorren urtetik aurrera, Atletico San Sebastian elkarteak antolatuko du proba.

Bi eibartar Zarautzeko squash torneoko podiumean

Alberto Ferreirok squash Euskal Ligako Euskal sofa V. torneo bereganatu zuen Zarautzen, finalean Oberena taldeko David Marin nafarrari irabazita, eta Sergio Salgado Eibarko Klub Deportiboko taldekideak 3. postua lortu zuen Oier Quesada gasteiztarrari gailendu ondoren. Eurekin batera izan ziren aipatutako torneoan Josu Gallastegi (8. postuan), Oscar Ferreiro, Patxi Zulueta, Fernando Valencia, Philip Marlowe eta Aitor Sanchez.



Alberto Ferreiro irabazlea David Marin finalistarekin.

Durangok eskura du foball zaletuen Kirol Jokoa liga



Sailkapenean bere atzetik zetozen Koskor eta Txokoren arteko berdinketarekin, Durangok bigarrenarekiko alde handitu du eta, liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan, zazpi puntuko koltxoia du liga irabazteko. Liderrak, gainera, gai izan ziren azken asteko talde onenari -Aretori- irabazteko, 2-1ekoarekin. Azken jardunaldian berdintasuna izan zen nagusi: lau berdinketa, gol bategatik bi garaipen eta Caseriok Alkidebari irabazitako 2-0koa.

...eta kitto! 14/III/14 • 882 zkia.



Deltecokoak Euskadiko txapeldun neguko triatloian

Domekan Isaban jokaturako neguko triatloian, gure herriko ordezkariak bost kopa eskuratu zituzten. Taldeka Pello eta Txomin Osorok, Edu Oyarzunek eta German Amuategik osatutako laukoteak Euskadiko txapela jantzi zuen, Pellok maila absolutoko eta 23 urtetik azpikoa bereganatu zuen, Txominek junior mailakoa eta Edu bigarrena izan zen beterranoen 2. mailan.

Bestalde, domekan Basaurin jokaturako duatloian, Aitziber Urkiola 23 urtetik azpiko onena izan zen eta Juanjo Romero bigarrena V2 mailan; han izan ziren Jonatan Alustiza eta Igor Fernandez ere. Asteburu honetan beste bi duatloi jokatuko dira gurean: bihar Oñatin Gipuzkoako duatloi motzaren txapela izango da jokoan eta etzi Barakaldon bertako XV. edizioa.

Abascal Memoriala jokatu da etzi goizean

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako 1. eta 2. urteko kadeteentzako probak 35. edizioa jarriko du domeka goizean jokoan. Lasterketa 10.30etan hasiko da eta, 52 kilometroko ibilbidea osatuta, 11.45etan bueltan amaituko da. Eibartik

Debaraino joango dira txirrindulariak, handik Maltzagaraino bueltatzeko eta, Osintxura joan ondoren, gure herriko helmugaren bila etortzeko (oraingoan ez da Bidebarrietan izango, Urkizun baino -Abascalen ohiko denez-).



Helmuga Urkizun egongo da kokatuta. LEIRE ITURBE

Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketa hasiko da bihar Azpeitin

11 jardunaldi izango ditu bihar hasi eta ekainaren 7an Las-turren amaituko den Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketaren 45. edizioak. Txapelketa hori zapatuero jokatu da (Aste Santuan eta Maiatzaren 1eko zubian izan ezik), arratsaldeko 17.00etan beti,

honako bolatokitian: Azpeitiko Garmendipen, Bergarako San Jo-xepen, Arrasateko Mietz Errekan, Elgoibarko San Pedron, San Roken eta San Migue-len, Soralezeko San Andresen, Elgetan, Azkoitiko Floreagan, Eibarko Asola Berrin (maiatzaren 31n) eta, amaitzeko, Debako Lasturren. Edozer gertatuta ere, ordezko bolatokia Garmendipe izango da.



Somos Eibarrek mendekua hartu zuen Elgoibarko Alcortaren aurrean

Lehenengo itzulian elgoibartarrak bakarrak izan ziren Somos Eibari irabazten eta oraingoan, partidua erraza ez izan arren, eibartarrek errebantxa hartzea lortu zuten, alde txikiarekin izan bazen ere ia denbora guztian aurretik joan eta gero. Talde bietako zaletuak bildu ziren Ipurua kiroldegian, norgehia-

gokari berezko berotasuna emateko. Xabier Larrañaga atezaina izan zen onena elgoibartarren aldetik; hala ere, Unai Ibaibarriaga eibartarren hegalekoak jaurtitako zazpi penaltiak gauzatu zituen. Eibartarrek puntu batean handitu dute bigarrenarekiko alde, Zaragozako Dominicosek berdindu egin baitzuen bere partidua.



Harrobiko guztiak garaile

Euskal Ligako Tekniker jubenil mutilek sailkapen buruan jarraitzen dute Euskadiko Txapelketako azken faseari begira, Urdulizen irabazi eta gero. Emakumezkoen jubenil taldeak ere irabazi egin zuen Ordizian. Eta kadeteen mailako talde guztiak garaipen errazak eskuratu zituzten.

Deporreko eskiatzaileak goi-goian Gipuzkoako txapelketetan

Aurreko asteburuan Somporten jokatuako eskolarren Gipuzkoako txapelketetan, Klub Deportiboko eskiatzaileak oso postu onak eskuratu zituzten. Horrela, infantil Ilean, Jone Iglesias eta Lucia Garai 2.a eta 3.a izan ziren eta postu berak eskuratu zituzten Eneko Abajok eta Iker Unanuek. Infantil 2an, bestalde, Nagore Cabanzon urrezko dominaren jabe egin zen, eta mutiletan Alex Davies-ek bigarren postua lortu zuen. Aurreko proba horiek zapatuan jokatu baziren, domekan skating txapelketak izan ziren jokoan eta, hor ere, maila bikainean jardun ondoren, Jone Saez onena izan zen kadeteetan.



Eskiatzaile gazteak asteburu bikaina burutu zuten Somporten.

Herriko zazpi gimnasta Espainiako txapelketerako plazaren bila Ipuruan



Ipurua Klubeko zazpi gimnasta ahaleginduko dira bihar, 10.30-etatik aurrera, banakako espainiako txapelketan parte hartzeko txartela lortzen. Irati Yarza eta Jennifer Hernandez seniorrak Euskal Ligako lehen fasean ahaleginduko dira Granadan ekainean jokatuko den txapelketerako sailkatzen eta gauza bera egingo dute Elene Varela, Nahia Arguiz, Malen Txurruka eta Teresa Miguel infantilek eta Elena Sodupe kadeteak apirilean Guadalajaran jokatuko denean parte hartzeko. Eskola mailan, Ipuruako alebin C taldea Oiartzunen izango da domekan, hango Udaberri Torneoan; hurrengo asteburuan, alebin, kadete eta jubenil taldeak Ibarren izango dira.

Agur Pedro Egiguren "Izkua" aizkolari-ohiari

Pedro Egiguren Larrañaga herenegun hil zen, 86 urterekin. Otaola-Kiñarraga bailarako Eizkoaga baserrian jaio zen eta bertan bizi zen. 14 urterekin hasi zen aizkoraren munduan eta 62rekin erretiratu zen, Arrateko On Pedro Gorostidi apaizari eskainitako omenaldian. Esku bakarrarekin egingako lanetan nabaritu zen batez ere eta garaipen entzute-tsuen Arria II.aren aurrean lortu zuen, kanaerdiko hamar enbor moztu eta gero. Harri zilindrikoarekin ere jardun zuen harri-jasotze lanetan. Arlo instituzionalean, bestalde, Kirol ordezkaria eta zinegotzia izan zen Eibarko Udalean. ...eta kitto!-k antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien barruan, 2004ko edizioan berak jaso zuen urte hartako Sari Berezia.



berriak



IGERIKETA

Ander Salaberria, Maite Barruetaña, Kattalin Izagirre eta Lucia Basurco asteburuan Tolosan izan ziren Euskal Herriko txapelketan parte hartzen eta, hainbat probatan hamar onenen artean egoteaz aparte, Maite Barruetaña 3.a izan zen 200 bizkarrean. Laurak hobetu zituzten euren markak.

ATLETISMOA

Martxoaren 22an jokatuko den XXI. Azkoitia-Azpeitia nazioarteko maratoi erdirako izen-emateak datorren eguenera arte egin ahal izango dira. 1.200 bat lagunene parte-hartzea espero dute antolatzaileek eta aurretik 500 korrikalari popular izango dira.

Eibar-Hercules etzi 18.15etan

Domekan jokatuko du Garitanoren taldeak Herculesen aurkako partidua, la Sextak telebisatuta. Partidu horretarako, eibartarrek Morales aurrelariaren baja izango dute (lau astetarako egongo da min hartuta) eta, horrez gain, Gilvanek ere ez du jokatuko (Herculesek lagatako jokalaria jokatzekotan, Eibar FT-k 20.000 euro ordaindu beharko lu-

ke). Talde bien arteko aldea 13 puntukoa da -eibartarren alde, jakina-, baina orain arte Ipuruan jokatutako zortzi neurketetatik lautan irabazle izan dira Alacantekoak. Bestalde, Xabier Irureta armaginen atezaina 2. A mailako gol gutxien jaso duen atezaina da. Eibartarrak bakarrik daude lidergoan, Deportivok baino puntu bat gehiagorekin.



LIKIDAZIOA

Valenciaga  **%50eko deskontuak**

K O N F E K Z I O A K

Zuloagarren, 7 ☎ 943 20 22 33

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Fax: 943 202564



ABUNDIO MAESTRO (artista) "Aroztegian beharra amaitu eta taillak egiten hasten nintzen"

Untzaga jubilatuta etxean Abundio Maestoren egur-taillak eta koadroak ikus daitezke egunotan. Orain dela 79 urte Salamancan jaioa, 23 urterekin Eibarrera etorri eta hemen eman du ia bizitza osoa, beharra eta artearekiko bere zaletasuna tartekatuta. Domekan itxiko duten erakusketa gaurtik etzira arte bisitatu daiteke.

- Orain arte ez duzu erakusketarik egin. Nolatan animatu zara ba?

Jendeak animatuta ausartu naiz. Izan ere, umetatik izan dut artearekiko zaletasuna, hamar bat urte nituela hasi nintzen egurra lantzen eta harrezkero bizitza osoan jardun dut taillak egiten, koadroak margotzen... Beharra amaitzean, denborapasa moduan sortu ditut erakusketan ikusgai dauden hauek eta etxean gorde-ta geratu diren beste artelan asko. Jendeari ez zitzaizkiola gustatuko pentsatzen nuen-eta; horregatik ez naiz lehenago animatu.

- Nolako izan da esperientzia? Zer diote etorri direnek?

Oso pozik nago. Jende asko etorri da bisitan eta ikusitakoa asko gustatu zaiela esan didate. Apirilean Eibarko Artisten Elkarteak Portalean erakusketa zabalduko du eta, hemengo esperientzia ona ikusita, aurtengo talde-erakusketan parte hartuko dut.

- Egur-tailletan zaila al da egurrean horrelako irudiak sortzea?

Bizitza osoan arotza izan naiz; gaztetan beste batentzat lanean eta, ondoren, Estaziño kalean ipini nuen tailerrean. Artetik bizi ahal izateko benetan ona izan behar da, bestela jai dago. Horregatik, aroztegiko beharra amaitzean, libre nuen denbora zaletasunari eskaintzeko aprobeztatzen nuen eta tailerrean geratzen nintzen ahal nuen guztietan: taillak egiten, koadroak margotzen...

- Tailletarako egurra lortzeko ez zenuen arazorik izango...

Alde horretatik abantaila, bai. Egurra ederto ezagutzen dut eta, beraz, oso erraza egiten zait egin nahi dudana taillarako egurrik egokiena aukeratzea. Intxaurrondoa erabiltzen dut: taillak egiteko onena da eta baita irudiak nabarmentzeko aproposena ere.

- Horrelako erliebedun koadroak egurrean egiteko zenbat denbora ematen duzun zenbatu duzu inoiz?

Lan bakoitza egiten orduak eta orduak eman ditut, mordoak, ezin jakin zenbat ordu sartuko nituen! Baina lan bakoitza egiten ibili naizen bakoitzean, esku artean daukadana besterik ez da egon nirentzat. Bestela, egin ditudan artelan guztiak berdin maitate ditut, niretzat denak dira bereziak eta kutunak.



Bertso bazkaria Legarren

Legarreko jai batzordeak apirilaren 5erako bertso bazkaria antolatuko du (14.30etan Legarre Gain elkartearen). Aurtengo ekitaldirako herriko bertsolariak aukeratu dituzte antolatzaileek: Mikel Arrillaga, Jokin Bergara eta Manu Goigogana (irundarra izan arren, eibartarrekin batera jarduten du-eta). Gaiak jartzen, bestalde, Asier Ibaibarriagak jardungo du. Menua honakoa da: entsalada, paella, postrea, kafea eta kopa (20 euro; umeei 10 euro, kafe eta kopa barik) eta txartelak Legarreko Bolintxo okindegian eta La Parra tabernan ipini dituzte salgai (bestela, jai batzordekoekin kontaktuan ipini).



Udaberrifesta gaztetxean

Eibarko gaztetxeok udaberriari ongietorria emateko Udaberrifesta antolatu dute martxoaren 22rako (zapaturoko). Egitarauari goizeko 11.00etan ekingo diote, futbolen txapelketarekin. 14.00etan bazkaldu eta gero, 16.00etan futbolen txapelketako finala jokatu da eta, hori amaituta, musikak beteko du iluntze-gaua: 19.00etatik aurrera erromeria eta kontzertuak egingo dira eta 22.00etatik aurrera nahi duenak Elektrofestan dantzan jarraitzeko aukera izango du. Futbolen txapelketarako zein bazkarirako (6 euro) izena eman nahi duenak Beleko, Depor eta Hirurok tabernetan izango du horretarako aukera (izena emateko orduan ondo zehaztu bazkarira joateko edo futbolen txapelketan parte hartzeko den, bestela antolatzaileek bietarako izena eman dela ulertuko dute-eta). Izena emateko azken eguna martxoaren 20a izango da.

Fruta-brotxeta tailerra

Gurasoak Berbetan egitasmoaren barruan sukaldaritza-tailerra egin zuten aurreko barixakuan bertan parte hartzen diharduten guraso eta horien seme-alabek. Hainbat fruta erabiliz brotxeta gozoak egin zituzten, eta hala nahi izan zuenak, txokolatetan bus-titzeko aukera ere izan zuten. ...eta kitto! Euskara Elkarteak gurasoei eskaintzen dien mintzapraktika programaren barruan, "Barixakuak jolasian" atala jaio da eta hileko lehen barixakuetan guraso eta seme-alabentzat hainbat ekintza antolatuko ditu ...eta kitto!-k. Hurrengoan eskularen txanda izango da, apirilaren 4an.



Alicia Garcia garaile II. Lan Artistikoen Lehiaketan

Aurreko asteko barixakuan inauguratu zuten Topalekuan Martxoaren 8aren harira Arrate Kultur Elkartek antolatutako Emakume Langilearen Egunaren II. Lan Artistikoen Lehiaketako lanen erakusketa. Horrekin batera, aurtengo lehiaketa nork irabazi duen inaugurazio ekitaldian eman zuten ezagutzera antolatzaileek: edizio honetan lehiatu diren hamar artelanen artean, 200 euroko saria Alicia Garcia Tartas-i ematea erabaki du epai-mahaiak. Irabazleak "Edozein lanetarako gaitasuna" izenburuko eskulturari zor dio garaipena. Erakusketa domekara arte egongo da ikusgai, baina oraingoan ez diote ohiko or-



Alicia Garcia (argazkian eskuman) bere lanaren aurrean, Iratxe Unanue Kultuko ordezkariarekin.

dutegiari jarraituko: erakusketa ikusteko Kultu tabernako atetik sartu beharko da eta taberna zabalik dagoen bitartean bisitatzeko aukera izango du jendeak.

Berba bikote irabazlea: "bihargin fina"

Euskarazko berba bikoterik politena aukeratzeko lehiaketa M^a Isabel Agirrebeñak irabazi du, "bihargin fin" bikotearekin. Erabakia Eibarko Euskararen web orrian jendeak emandako botuak (botuen %24 jaso zuen) eta epai-mahaiaren iritzia kontuan izanda hartu dute. Irabazleak Coliseoko emanaldi baterako sarrera bi eta Armagintzaren Museorako beste bi jasoko ditu



sari modura. Horrekin batera, lehiaketan parte hartu duten guztien artean egindako zozketan saria Mikel Arrillagari egokitu zaio. Arrillagak "azal gogorra" bikotea proposatu zuen eta saria Gotzon Iparragirrenen "Eibar, oasi liberala" liburua eta Kalamuako Parlamentua jokoak osatzen dute. Antolatzaileek azaldutakoari jarraituta, "bihargin eta fina sarri lotzen diren berbak dira. Gainera, bihargin berba Eibarko euskararen bereizgarrietako bat da".

Zarzuolak Coliseoa bete zuen



Aurreko barixakuan Coliseoak hartu zuen Zarzuolaren Antologiak pozarren laga ziotuen antzokia bete zuten ikus-entzuleak. Ozenki Elkartek antolatutako emanaldian, goi-mailako bakarlariekin batera Sotto Voce soka-orkestrak, Joseba Candaudap piano-joleak eta Sostoa abesbatzak jardun zuten eta denek elkarrekin ikuskizun bikaina eskaini zuten taula gainean.

Fikziozko pertsonaia bizidunak

Antzerki Jardunaldien eskutik, aurreko barixakuan giza irudi benetan ikusgarriak izan genituen bisitan Untzaga eta inguruan. Urtero lez, oraingoan ere umeak eta nagusiak, biak berdin-berdin harritu ziren ezustean euren parean Alien, Predator eta bestelako pertsonaia aurkitzean.



Bertsoak Kultun

Bertsozaleentzat plan ederra presatu dute Arrate Kultur Elkartek eta Hankamotzak bertso eskolak: martxoaren 27an (eguna) 19.00etatik aurrera Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariek saio berezia eskainiko dute tabernan bertan. Eta horrekin gozatu eta gero norbait oraindik bertso gosez geratu bada, martxoaren 29an asetzeko modua izango du, 14.00etatik aurrera Arrate Kultur Elkartean Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariekin bazkaria egingo da-eta (bazkarirako txartelak Kultun eros daitezke).

Tabernako saioa
Martxoaren 27an, eguna.
20:00etan. Kultu tabernan

Agin Laburu Bertsolaria
Beñat Gaztelumendi Bertsolaria

bertso astea

Bertso bazkaria
Martxoaren 29an, zapatua.
14:30ean. Arrate Kultur Elkarteko lokalean.
Sarrerak 25 euro (23 bazkideak)
Kultu Tabernan salgai!

Mariela Lopez-Zuñiga
Unai Agirre Bertsolaria

antolatzaileak:



Antzerki Jardunaldia



**Martxoak 14
barixakua
20.30
Coliseoan
60 min. / 11 euro**

"The Cirque de Legume" (CIRQ. LEGUME)

ZUZENDARIA: PABLO IBARLUZEA

ANTZEZLEAK: JAIMIE CARSWELL, PABLO IBARLUZEA

Ikuskizun komiko/absurdoa da. Aulki bat eta barazki kaxa batekin bakarrik, bi "ergel" Cirque de Soleil-en antzeko ikuskizuna aurkezten saiatzen dira. Emaitza ordubeteko eromen hutsa da, historiako ergelena den zirkoan. Emozioa eta sentsualitatea nagusi.



Euskeraz

**Martxoak 16
domeka
20.30
Unibertsitatean
60 min. / 5 euro**

"Inungane, sustraiak airean" (KARRIKA)

ZUZENDARIA: JOXE MARTIN URRUTIA "TXOTXE"

ANTZEZLEAK: ENDIKA ZAMALLOA, JOANA OCAÑA, NAZARET FROUFE, UXURI GALLASTEGI, ENEKO SAGARDOY, MIREN ERDOIZA, ALIZIA OTXOA, ION GORROÑO

Karrika Antzerki Taldea konpainia amateurra da, 1998. urtean Durangon sortua eta, bizkarrean daramatzen 15 urteotan dagoeneko Durangaldeko kulturaren parte aktiboa bihurtu da. Kultur arloan euskarazko antzerkiaren beharra ikusi eta halaxe jaio zen taldea. Orain arte ekoitzi dituzten hogeita bat ikuskizunak Euskal Herrian barrena zabaldu dituzte, hainbat herri eta hiritan. Bide horretan jarraitzen dute, egunetik egunera jakintsuago. Sormena sustatuz eta irudiaren eta soinuaren alderdi plastikoa landuz, sormen kolektiboan eta tematika sozialean aurkitzen dute oinarria. Beti ere, erroak ahaztu gabe: antzerkia eta euskara. Antzerki Jardunaldia hauetan aurkeztu behar duten lanari begira, honakoa diote: "Inungane gure barrenetatik, hesteetatik, sortutako galderekin eraiki dugun kabia da. Hitz gutxitan, emigrante bihurtu gara, kanpora zein barrura bidaiatzeko. Joan eta etorri, irten eta sartu, bidaia hau egiteko askatasuna aldarrikatuz. Zein ederra litzatekeen zikoina izatea, nahi dugun tokian jaio eta nahi dugun tokian hiltzea. Norabiderik gabe, hegoez baliatu eta iparraldera edo hegoaldera bidaia egitea..."



**Martxoak 17
astelehena
20.30
Unibertsitatean
60 min. / 11 euro**

"Juana la loca. La reina que no quiso reinar"

ZUZENDARIA: J.D. CABALLERO

ANTZEZLEAK: GEMA MATARRANZ, ENRIQUE TORRES

Juana I. erregina, estatu arrazoia medio, Felipe el Hermosorekin ezkondu zen 16 urterekin. Alarguntzean, 46 urte pasatu zituen komentu batean. Sasoi horretan dago kokatua antzez proposamen hunkigarri hau, memorian luzaroan gordetzen dugun horietakoa.



**Martxoak 19
eguztana
20.30
Coliseoan
75 min. / 11 euro**

"Cuarteto del alba" (LAURENTZI)

ZUZENDARIA: LANDER IGLESIAS

ANTZEZLEAK: ALBERTO IGLESIAS, MAIKEN BEITIA, RICARD MOYA, VALERY TELLETXEA

Herri, belaunaldi eta lagun batzuen frustrazio eta bizipenetatik zehar bidaia emozionala egitera gonbidatzen gaite ikuskizunak. Hori proposatzen da hizkuntza eszeniko moderno eta diziplina desberdinak lantzen dituen muntaia oso fisikoaren bitartez.



**Martxoak 20
eguna &
Martxoak 21
barixakua
20.30
Coliseoan
90 min. / 15 euro**

"Conversaciones con mama" (FOCUS)

ZUZENDARIA: JUAN ECHANOVE

ANTZEZLEAK: MARIA GALIANA, JUAN ECHANOVE

Bi aktore paregabe datoz gurera, oraingoan komedia erromantiko eta maitekorrekin, gutako edozeinen etxeetan gerta daitekeen istorio hurbil batekin. Semeak estatus handiko bizimodua galdu eta amarengana doa bisitan, laguntza eske. Bizitza bera, gordinean.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JUNE, neska haundi!!, bixar zortzi urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa. Amaren, aittaren eta lagunen partez.



Zorionak, ARRATE, astelehenian 12 urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LUR, neska haundi, hillaren 11n bost urte egin zenduaz-en-eta. Patxitua famelixaren partez. Jarraitu holan!!



Zorionak, JULEN, mutil haundi, atzo bi urte egin zenduaz-en-eta. Ez galdu iñoiz irrifarre hori. Aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, JOKIN, haraiñegun 10 urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Garaziren partez.



Zorionak, PELLO Alberdi Minondo, gure potxolo, gaur urte bi betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL, bixar zortzi urte beteko dozuz-eta. Ondo ospatu eguna. Etxekuen partez.



Zorionak, JONE, gaur zazpi urte betetzen dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, AIALA, pitxin! zure eguna be heldu da-eta! Bixar lau urte!! Etxekuen partez.



Zorionak, MIKEL, gaur 10 urte egitten dozuz-eta, mutil haundi! Muxuak famelixaren partez.



Zorionak, LOREA, gure printzesak hillaren 10ian zazpi urte egin zittuan-eta. Txokolatzeko muxuak famelixaren partez.



Zorionak, bikote, zuen 10. urte-betetzian (MARKEL, hillaren 17xan; eta PAULA, hillaren 12xan). Ondo ospatu eta muxu asko, famelixaren partez.



Zorionak, IKER, aitaxoren egunian aitaxo moduan lehelengo bidar urtiak egingo dozuz-eta. Milla muxu etxekuen partez.

hildakoak

- Miro Perez Larin. 89 urte. 2014-III-6.
- Eduardo Jaio Bergara. 83 urte. 2014-III-6.
- Manuela Estevez Conde. 80 urte. 2014-III-8.
- Andoni Ros Ros. 59 urte. 2014-III-10.
- Amaia Sanagustinetxebarria Bilbao. 87 urte. 2014-III-12.
- Pedro Egiguren Larrañaga. 86 urte. 2014-III-12.

jaiotakoak

- Iker Zamakola Goncalves. 2014-II-23.
- Aitor Erostarbe Rubio. 2014-II-27.
- Nahia Esteban Huertos. 2014-III-1.
- Ainhoa Lorenzo Gomez. 2014-III-4.
- Ane Calleja Perez. 2014-III-6.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

14an: 22.30
15ean: 17.00, 19.45, 22.30
16an: 17.00, 20.00
17an: 20.30


"Qué hacemos con Maisie?"
Zuzendaria: Scott McGehee



(2 ARETOAN)

14an: 22.30
15ean: 17.00, 19.45, 22.30
16an: 17.00, 20.00
17an: 20.30

"Alabama Monroe"
Zuzendaria: Felix Groeningen



(ANTZOKIAN)

14an: 22.30
15ean: 19.45, 22.30
16an: 20.00
17an: 20.30

"8 apellidos vascos"
Zuzendaria: Emilio M.-Lazaro



(ANTZOKIAN)

15ean: 17.00
16an: 17.00

"Bram Barrabas" EUSKERAZ
Zuzendaria: Anna vander Heide



BARIXAKUA 14

INDIANOKUA

16.30. Disparate eguna eta kanikekin giltzarriak egitea. Gaztelekuan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Entsegua. San Andres elizan.

AFARIA

21.30. Fran Lasuenen omenez. Birjiñape tabernan.

ZAPATUA 15

LORE AZOKA

09.00/14.00. Debemenen eskutik. Urkizuko parkean.

AUZOLANA

10.00. Gaztetxean (Iparragirre kalean).

OUTLET-A

12.00. Anemona Outlet-a. Gosariak euro bitan. Beleko tabernan.

TRUKE AZOKA

12.30. Gaztetxeokoe antolatuta. Urkizun.

INDIANOKUA

17.00. Play/Wii. Gaztelekuan.

UMEENDAKO TAILERRA

17.30. "Aitaren Eguna". El Corte Inglesean.

DOMEKA 16

TXIRRINDULARITZA

10.30. XXXV. Abascal Memoriala (kadeteak). Helmuga Urkizun (11.45)

OUTLET-A

12.00. Anemona Outlet-a. DJ Okerreko. Beleko-n.

ANTZERKIA

19.00. "Antonio Remachado" (Kolektibo Monstrenko), Berreibar Kulturalak antolatuta (euro bat). Bektokixan (Bittor Sarasketa, 7).

MARTITZENA 18

IKASTEN

10.00. "Las siete maravillas de la antigüedad". M^a Jose Noain. Armeria Eskolan.

HITZALDIA

19.00. "Derechos sexuales y reproductivos desde una perspectiva internacional". Joana Etxano. Portalean.

EGUENA 20

IKASTEN

10.00. "Modificaciones y nueva normativa relacionada con las viviendas". Josu Garate arkitektoa. Armeria Eskolan.

TAILERRA

18.30. "Nola egin aurre estresari eta antsietateari". Nutricion Center etxea. El Corte Inglesean.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Comunicacion, asertividad y resolucion de conflictos en familia" hitzaldi irekia gurasoentzat. Aldatze ikastetxean.

ODOLA-ATERATZEA

18.30. Odol-emaileentzat saioa. Anbulategian.

HITZALDIA

19.00. "La mochila del emprendedor". Carlos Abad. Berreibar Kulturalak antolatuta. Portalean.

BATZAR NAGUSIA

19.00. ...eta kitto! Euskara Elkartearen Urteko Batzar Nagusia (bigarren deialdia 19.30etan). Urkizu, 11-n.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Entsegua. San Andres elizan.

MONOLOGO SAIOA

22.30. Miki Dkai (Paramount Comedy). Laurel&Hardy tabernan.

ikastaroak

✓ Emakumeentzako Tao Sendagarria (hileroko topaketa)

Noiz: Martxoaren 15ean. Andretxean. Izen-ematea: 678068959 / asoc.defibel@gmail.com

✓ Reiki

Noiz: Martxoaren 15ean eta 16an. Izen-ematea: 665743217.

✓ Photoshop (oinarrizko maila)

Noiz: Martxoaren 17, 18, 19, 20 eta 21ean (19.00-21.30), Portalean. Izen-ematea: 688611020 / cursodeporps@gmail.com.

✓ Fandango eta arin-arin ikastaroa

Noiz: Martxoaren 26tik aurrera eguaztenetan (19.00-20.30), Kultun. Izen-ematea: 943202299 / arratekultu@gmail.com

✓ Arduino ikastaroa

Noiz: Martxoaren 29an. Gaztelekuan. Izen-ematea: Pegoran.

✓ Geolokalizazio Aktiborako Tailerra

Noiz: Apirilaren 1ean eta 3an. Portalean. Izen-ematea: Pegoran.

✓ Auzolan digitala Wikipedia editatzen

Noiz: Apirilaren 8an eta 10an. Portalean. Izen-ematea: Pegoran.

✓ UEU-ko udaberriko ikastaroak

Izen-ematea: 943821426 / www.ueu.org

HOROSKOPOA

ARIES

Ondo jan eta edateko egunak izango dira zuretzat. Jatekoaz ederki gozatzear gain, gure gastronomia ondo ezagutuko duzu.

TAURUS

Hasi zaitzake Aste Santurako planak egiten. Zer duzu nahiago: mendia ala hondartza? Aurten aukeratzeko beta izango duzu.

GEMINI

Zure baloreak defendatzen saiatu beharko zenuke, besteek diotenari men egin barik. Zergatik ez esan pentsatzen duzuna?

CANCER

Zure papera oso garrantzitsua izango da liskar batean. Ez da zure erruagatik sortuko, baina izango duzu zeresanik.

LEO

Eztarriko minak ez dizu lo egiten lagako egun batzuetan. Eztulka ibiliko zara eta zerbait hartu beharko duzu aurre egiteko.

VIRGO

Aste beltza daukazu aurretik. Hasieratik okertuko zaizkizu gauzak eta ez duzu burua jasoko. Hibernatzea pentsatu duzu?

LIBRA

Zergatik aldatu ondo doana? Saia zaitz bide onetik jarraitzen, nahastu gabe. Hankak lurrian badituzu, trankil egon!

SCORPIUS

Ez da ezer larria izango, baina irtenbidea aurkitu behar diozu egoerari. Horretarako laguntza emango dizu gertuko batek.

SAGITTARIUS

Lagun berezia hurbilduko zaizu, baina ez zaitz gehiegi fidatu. Saiatu zer nahi duen jakiten eta horren arabera jokatu gero.

CAPRICORNIUS


Arauk diren modukoak dira eta horrela onartu behar dituzu. Zergatik ez zara eurretara moldatzen? Egokituko zara!

AQUARIUS

Ezin izango duzu gehiago jasan eta lehertu egingo zara. Nahikoa da, ezta? Arrazoi gutzia daukazu horrela jartzeko. Ez etsi!

PISCIS

Familiarekin inoiz baino hurbilago egongo zara eta, ondorioz, zuen artekoa asko sendotuko da. Ikasbide ederra izango da.



erakusketak

- ✓ **Martxoaren 16ra arte**
EMAKUME LANGILEAREN EGUNAREN II. LAN ARTISTIKOEN lehiaketako lanak. *Topalekuan.*
ABUNDIO MAESTROREN talla eta pintura erakusketa. *Untzaga Jubilatut Etxean.*
- ✓ **Martxoaren 20ra arte**
IBONE GARCIAREN margo erakusketa. *Beleko tabernan (Bista Eder, 2).*
- ✓ **Martxoaren 31ra arte**
“GRAFIKAK” emakumeen erakusketa kolektiboa. *Portalean.*
PEDRO ARRIOLAREN “Japon” argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*
ANTONIO VILLANUEVAREN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
ANDRES LOZANOREN “Aste Santua” argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
CARLOS TRUKOREN margo erakusketa. *Deika tabernan (San Juan, 1).*
- ✓ **Apirilaren erdialdera arte**
VANESSA ATECA-REN margo erakusketa. *Casanella Studion (Juan Gisasola, 16)*

lehiaketak

- ✓ **Made in Eibar:** Eibarko industriarekin lotutako euskerazko dokumental lehiaketa. **Sariak:** Atal ezberdinetan 3.000 euro bekatan. Lehiaketan parte hartzeko ikastaroak: Apirilaren 5, 12, 14, 15 eta 16an (Itzarnak emanda, euskaraz). **Izen-ematea:** Martxoaren 17tik 28ra.
- ✓ **XVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa:** Gaia: Aratosteak. **Lanak aurkeztea:** Arrate Kultur Elkartean, apirilaren 1erako. **Sariak:** 160 euro, 100 euro eta 60 euro.
- ✓ **Berreibar Paisajintza Lehiaketa:** **Lanak aurkeztea:** Apirilaren 22ra arte.
- ✓ **Toribio Etxebarria Sariak:** **Lanak aurkeztea:** www.toribiochevarria.com

	3		6	5			7
					1	3	
9	1	4					6
		2	8	9	1		
	6				4		
	8	5	4	6			
2				4	5		7
	5	3					
7			2	5		1	

farmaziak

- ✓ **barixakua 14**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **zapatua 15**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **domeka 16**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **astelehena 17**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **martitzena 18**
EGUNEZ **Las Heras** (Calbeton, 19)
- ✓ **eguztena 19**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguen 20**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **barixakua 21**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

2014 urte osorako
GAUEZ
Azkue (T. Etxebarria, 4)

SUDOKUA

2	3	9	6	8	7	4	5	1
4	5	8	9	1	2	6	3	7
7	6	1	5	4	3	8	2	9
1	8	7	3	5	4	9	6	2
5	4	2	7	6	9	3	1	8
3	9	6	1	2	8	7	4	5
8	1	5	4	7	6	2	9	3
6	2	3	8	9	5	1	7	4
9	7	4	2	3	1	5	8	6

AURREKOEN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.50, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 komuna eta trasteroa. Igoailua. 130 m² erabilgarri edo 156 m² eraikiak. Argitsua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 626-203838 eta 699-495249.
- Amañan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta balkoi itxia. Berogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 607-808827.
- Babes ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 75 m². Trasteroa eta garajearekin. Tel. 655-706983 eta 647-720800.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Jardíñeta 19an (1. eskuma). 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta terraza. Kalefakzioa eta igogailua. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 943-202665.
- Pisua behar dut alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.
- Pisua hartuko nuke errentan Eibarko erdialdean. Tel. 625-422170.
- Pisua hartuko nuke errentan Eibarko erdialdean. Tel. 602-838236.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Sostoarren inguruan. Prezio onean. Tel. 630-580010.
- Garaje itxia alokagai Abontzan. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.
- Lokala alokagai Urkizun. 70 m². Tel. 692-714685.
- Garajea alokagai Abontzan. 15 m². Tel. 619-418315.
- Lokala alokagai Isasi kalean. 18 m². Estudioa ipintzeko edo klaseak emateko aproposa. Tel. 620-608065.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da igeltsero eta pintore jarduteko. Esperientzia. Tel. 695-858174.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko... Tel. 602-023214.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 638-205490.
- Geriatrian ikasketak egindako mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko edozein ordutan. Esperientzia. Tel. 655-132769 eta 631-379089.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-855268.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 638-855268.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 659-813248.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 642-609678.
- Neska eskaintzen da arratsaldean eta gauetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-841158.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldean eta asteburuetan umeak zaintzeko eta kamarera moduan. Tel. 669-344278.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Esperientzia eraikuntzan. Tel. 632-192408.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 620-258708.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-395829.
- Geriatria ikasketak dituen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 652-532589.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta baita gauetan ere. Tel. 618-935929.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta baita gauetan ere. Tel. 639-020081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 665-322150.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxea zaintzeko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Esperientzia. Tel. 675-358119.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 670-831279.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-144954.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 654-281645.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 664-584022.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari jarduteko eta umeak zaintzeko. Lau urteko esperientzia. Tel. 661-745591.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 686-265293.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta eraikuntzan lan egiteko. Tel. 651-186934. Carlos.
- Neska eskaintzen da edozein lanerarako. Tel. 690-359554.

- Mutila eskaintzen da lantegiak, supermerkatuak... garbitzeko. Esperientzia. Tel. 616-370323.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 659-513578.
- Gizarte hezitzaile euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 639-942094.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 633-244397.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerarako: kamarero, sukaldari, tailerlean... Esperientzia. Tel. 678-294450.

4.2. Langile bila

- Kamareroa behar da Eibarren. Bidali curriculum-a: bar.ofertaempleo@gmail.com
- Sukaldaria eta kamareroa behar dira Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a: davidtubolab@gmail.com

6. Denetarik

6.4. Bestelakoak

- Mutiko batentzat 18-20 neurriko bizikleta hartuko nuke. Tel. 646-293311.

+ OSASUN GODA

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairatea
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoan
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoak

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA

Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
a_garitaonandia@hotmail.com



Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**



R.P.S. 5508

J. Etxeberria, 13 943 700 230





*Bilduma
berria*

G-STAR RAW
E Y E W E A R



**ERAIKIN BERRIKO
ETXEBIZITZAK
BITTOR SARASKETA KALEAN**

IbaiOndo
inmobiliaria



1, 2 ETA 3 LOGELAKO
ETXEBIZITZAK **125.000€**tik
AURRERA

INFORMAZIOA:
Bidebarrieta 24, behea
943 201213 / 633 483956